

EUSKARA

Edurne GANUZA ZUAZU

EUSKARAREN HITZ-ORDENA:
SISTEMA BEREGAINA ALA
ERDARAREN MENDEKOA?

TFG/*GBL* 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación
Infantil /

Haur Hezkuntzako Irakasle Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasle Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**EUSKARAREN HITZ-ORDENA: SISTEMA
BEREGAINA ALA ERDARAREN MENDEKOA?**

Eduarne GANUZA ZUAZU

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Edurne GANUZA ZUAZU

Izenburua / Título

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasle Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Patxi SALABERRI ZARATIEGI

Saila / Departamento

Filologia et Hizkuntzaren Didaktika Saila / Dpto. de Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatua, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluak hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakasle Graduaren ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicumak daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren zehazten ez duenez gero, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarri, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua batez ere aurrekarietan eta marko teorikoan garatzen da. Bertan euskararen hitz-ordenari buruz ikasitako teoria agertzen da, S.O.A ordena eta ordena librea azaltzen dira. Bestalde, haurren garapenari buruz ikasitako guztiak bidea eman digu haurrek hitz-ordenarekin izaten dituzten akatsak hazkuntzarekin batera zuzenduko diren edo beste jatorri batekoak diren argudiatu ahal izateko. Hori dela eta, aurrekarietan hizkuntzaren garapenari buruzko informazioa agertzen da.

Didaktika eta diziplinako moduluan ikasitakoa esku-hartze atalean islatzen da. Bertan adin honetako haurrek nola ikasten duten azaltzen delako, eta ikaskuntza hori aurrera eramateko bi jarduera proposatzen direlako. Beraz, atal honek haurren ikaskuntzarako jarduerak prestatzen jakiteko bidea eman digu. Haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz, metodologia desberdinen bidez jarduerak prestatzeko ahalmena eman baitigu.

Halaber, Practicum moduluak haurrak eta haien esaldiak behatzeko bidea eman digu. Modu honetan gaia modu praktiko batean aztertze aukera izan dugu. Haurrek produktutako esaldiak aztertu eta hitz-ordena klasean nola lantzen den ikusteko aukera eman digu. Beraz, lana teorikoa bakarrik izan beharrean enpirikoa izatea ekarri du atal honek. Practicum moduluak atal praktikoan islatzen da, haurren esaldiak agertzen direnean eta haien interpretazioan. Esku-hartzean ere Practicumean erabiltzen ziren jardueren antzekoak agertzen dira, ariketa hauen xedea hitz-ordena modu egokian erabiltzea baita.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatzi dira "INTRODUCCIÓN" eta "ANTECEDENTES" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Nafarroan, Iruñerrian batez ere, euskara eta gaztelania elkarrekin bizi dira eta eragina izaten dute bata bestearengan. Bi hizkuntzek hitz-ordena desberdina dute eta askotan euskaraz hitz egiterakoan akatsak sortzea ekartzen du honek, hiztunek esaldiak gaztelaniaren ereduari jarraikiz osatzen dituztelako. Gaztelaniaren eta inguru erdaldunaren eragina hain da handia ezen euskara ama hizkuntza duten hiztunek ere hitz-ordenarekin arazoak izaten dituzten.

Euskarazko esaldien egitura malgua da. Euskarak egitura neutro edo kanonikoa du eta aldi berean, testuinguruaren arabera eta hiztunaren nahiaren arabera, egitura hori alda daiteke.

Euskarak hitz-ordena propioa mantentzeko eta guztiok modu egokian erabil dezagun, euskara ikasten hasten garenetik hartu behar da kontuan hitz-ordenaren gaia. Hori dela eta, Haur Hezkuntzan landu beharreko gaia da, adin horretan hasten baita haur askok euskararekin duten kontaktua.

Gako hitzak: komunikazioa; esku-hartzea; Haur Hezkuntza; egitura; hitz-ordena

Resumen

El euskera y el castellano conviven en Navarra y sobre todo en la cuenca de Pamplona. Esto afecta a las dos lenguas. Los dos idiomas utilizan un orden de palabras diferente, lo que hace que muchas veces, al hablar en euskera, se cometan fallos porque se forman las frases siguiendo el modelo castellano. La influencia de la lengua castellana y del entorno castellano-parlante es tal que hasta los/as hablantes cuya lengua materna es el euskera tienen problemas en este ámbito.

La estructura de las oraciones en la lengua vasca es flexible. Ésta puede ser neutra o canónica y, al mismo tiempo, puede modificarse dependiendo del contexto o de la intención comunicativa del hablante.

Para que el euskera conserve su orden de palabras y para que todos/as lo utilicemos de forma adecuada, este tema debe ser tomado en cuenta desde que empezamos a hablar el idioma. Es por eso que este es un tema a tener en cuenta en Educación Infantil, ya que entonces es cuando muchos/as niños/as empiezan su contacto con el euskera.

Palabras clave: comunicación; intervención; Educación Infantil; estructura; orden de palabras

Abstract

Basque and Spanish languages live together in Navarre, especially in the area of Pamplona. This situation has an effect on both languages and their grammar.

These languages have different word orders in sentences. For this reason, sometimes, when people speak Basque they make mistakes because they produce sentences using the model of Spanish. The influence of the Spanish language and the Spanish speakers' environment is such that the speakers that have Basque as a native language also have problems with word order.

The structure of sentences in Basque is flexible. It can be neutral and at the same time it can be modified depending on the context or on the communicative intention of the speaker.

We have to take into account the word order since the time we start speaking the language. This way we are going to keep the structure of the Basque language and we are going to use this appropriately.

Therefore, we have to allow for the subject in Infants Education because it is here where many children have the their first contact with Basque language.

Keywords: communication; intervention; Infants Education; structure; word order

Antecedentes

Los seres humanos nos comunicamos mediante el lenguaje. Dell Hymes (Ruiz Bikandi, 2009: 103) utilizó por primera vez el término “competencia comunicativa” en lugar de “competencia lingüística” para definir esa capacidad de los seres humanos. Un usuario que conoce la lengua desde su nacimiento, es decir, alguien que usa esa lengua desde que obtuvo la capacidad de comunicarse verbalmente, utiliza correctamente tanto sus reglas teóricas como las prácticas. Tiene la capacidad de hacer bien el proceso de comunicación, usando los conectores adecuados para entender, elaborar e interpretar los diversos eventos comunicativos, teniendo en cuenta no sólo su significado explícito o literal, sino también las implicaciones y el sentido intencional. El término se refiere a las reglas sociales, culturales y psicológicas que determinan el uso particular del lenguaje en un momento dado.

Las personas que aprenden una segunda lengua sin embargo, aunque conocen y utilizan correctamente varias áreas del lenguaje, tienen problemas en otras, sobre todo en el lenguaje oral. Dicho de manera breve, la competencia comunicativa se divide en tres partes: competencia gramatical, competencia sociolingüística y competencia estratégica. Cuando una persona adquiera estas tres competencias diremos que ha alcanzado la competencia comunicativa en esa lengua y por lo tanto, habrá aprendido lo necesario para comunicarse en cualquier ámbito y expresar adecuadamente lo que necesite. En la enseñanza de una lengua el objetivo final es que la persona que está aprendiendo obtenga además de la competencia lingüística la competencia comunicativa.

El idioma tiene varias funciones y la clasificación de estas ayuda a quien enseña el idioma, sobre todo en el aprendizaje del primer idioma. En general el idioma es la herramienta de comunicación y la herramienta para pensar de los/as humanos/as, pero además de ésta, hay otras clasificaciones:

Según Roman Jakobson (Ruiz Bikandi, 2009: 103) la lengua tiene estas funciones:

- Función referencial: sirve para hacer referencia a los objetos del mundo.
- Función emotiva: se utiliza para dar a conocer el mundo del emisor.

- Función conativa: se usa para atraer la atención del receptor
- Función fática: sirve para mantener el contacto entre los hablantes.
- Función metalingüística: se utiliza para hacer referencia al idioma.
- Función poética: se usa para rehacer la forma del mensaje.

Y según Michale Halliday estas son las funciones de la lengua:

- Función instrumental: se utiliza para saciar las necesidades materiales.
- Función reguladora: sirve para controlar el comportamiento humano.
- Función interaccional: se usa para mantener el contacto, para asegurar las relaciones sociales.
- Función personal: sirve para expresar sentimientos, emociones y reacciones.
- Función heurística: se utiliza para explorar la realidad, para aprender.
- Función imaginativa: se usa para crear mundos imaginarios.
- Función representativa: sirve para informar sobre el mundo real, los objetos, las situaciones, los procesos y las personas.

Pero la lengua tiene otras funciones para los/as niños/as: afianzar sus ideas, guiar, contar, razonar. Anunciar, proyectar e imaginar. Estas funciones van variando conforme estos/as van creciendo.

Así pues, para comunicarnos debemos aprender el idioma. En el proceso de aprendizaje de la lengua, como en cualquier otro proceso de aprendizaje, el niño o la niña pasa por diferentes fases hasta llegar al nivel de los adultos. López-Ornat (J.J. Zubiri, 1996-97) divide este proceso en cuatro fases:

- Primera etapa o etapa pregramatical: El niño o la niña no utiliza unidades morfosintácticas por lo que no hay nada que examinar en este ámbito.
- Segunda etapa o etapa de las reglas defectuosas: a partir de esta etapa empezará a utilizar reglas gramaticales. El niño o la niña empezará a utilizar una Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

estructura o un grupo de estructuras. De esta forma comenzará a cometer errores por utilizar la estructura cuando no hay que utilizarla o por no usarla cuando es necesaria. Normalmente esta etapa dura poco tiempo. En esta etapa el niño o la niña dirá *"he roto"*, ya que imitará el ejemplo del adulto.

- Tercera etapa o etapa de las reglas inflexibles: el niño o la niña ha aprendido la regla y la utiliza en todo momento, hasta cuando no es necesaria. Es decir, utiliza la norma también en las excepciones. Por eso, la misma persona que en la etapa anterior utilizaba *"he roto"*, porque imitaba a los adultos, en esta etapa dirá *"he rotpido"* porque seguirá la regla que ha aprendido.
- Cuarta etapa o etapa de las reglas flexibles: el niño o la niña ha aprendido todas las reglas y utiliza la misma estructura gramatical que un adulto. La persona que anteriormente había cometido el error de decir *"he rotpido"*, vuelve a utilizar la forma gramatical correcta porque ha aprendido que dentro de la regla hay excepciones y sabe cuando tiene que utilizar cada regla. Por eso, volverá a decir *"he roto"*.

Por lo tanto, para aprender o enseñar un idioma tendremos que tener en cuenta estas fases, ya que serán la razón de los errores cometidos.

Cuando se aprende euskera se tiene problemas con el orden de las palabras, ya que convive con el castellano, y ésta utiliza un orden de palabras diferente. Es por eso que las personas que tienen el castellano como lengua materna cometen este tipo de errores. Pero este problema afecta también a las personas que tienen el euskera como lengua materna, puesto que estos también viven en un entorno castellano-parlante.

AURKIBIDEA

INTRODUCCIÓN	1
1. Marko teorikoa	3
1.1. S.O.A. hizkuntzak	3
1.2. Euskararen hitz-ordena	4
1.3. Zenbait teoriariren usteak	6
2. Alderdi praktikoa	9
2.1. Materiala eta metodoak	9
2.2. Emaitzak eta hauen eztabaida	9
2.2.2. Sailkapen batzuk	10
2.2.2.1. Baiezko perpausak	10
2.2.2.1.1. Galderen erantzunak	10
2.2.2.1.2. Aditza hasieran dutenak	13
A) Aditz modalak	13
B) Beste aditzak	14
2.2.2.1.3. Bestelakoak	20
A) Sintagmak	20
B) Bestelakoak	22
2.2.2.2. Ezezko perpausak	26
2.2.2.3. Galderak	28
2.3. Interpretazioa eta ondorioak	31
2.3.1. Datuen interpretazioa	31
2.3.2. Esku-hartzea	33
2.3.2.1 Orokorra	33
2.3.2.2 Lehenengo jarduera : ordena neutroa ikasteko jarduera	36
2.3.2.3 Bigarren jarduera : denda	37
Eranskinak	
A. 1. eranskina	
Bibliografia	

INTRODUCCIÓN

En un lugar en el que conviven varios idiomas es normal que las características de unos influyan en las de los otros. Esa es la situación actual del euskera en Navarra. En este caso nos centraremos en cómo el castellano afecta al euskera en el orden de palabras que éste utiliza.

El euskera tiene un orden neutro o canónico conocido como S.O.V, es decir: sujeto, complemento y verbo. Pero éste varía dependiendo de lo que el hablante quiera expresar. El castellano sin embargo usa un orden diferente. Esto hace que algunos hablantes utilicen el orden de las palabras en la lengua vasca de manera inadecuada, ya que copian el modelo del castellano.

Para analizar cómo afecta esto al euskera, y más concretamente a su aprendizaje, se han recopilado frases producidas por 33 niños/as de cuatro y cinco años mediante el método de la observación. Ésta se ha llevado a cabo en la Escuela Pública Ermitaberri de Burlada.

La producción oral de estos/as niños/as ha sido clasificada teniendo en cuenta el orden de palabras que han utilizado en la oración. Después se han analizado los errores y su origen. Finalmente se han hecho varias propuestas para solucionar este problema.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. S.O.A. HIZKUNTZAK

Hizkuntza bakoitzak perpausak egiterakoan hitz-ordena ezberdina erabiltzen du. Subjektua-Osagarria-Aditza (SOA) ordena erabiltzen duten hizkuntzak “SOA hizkuntzak” deitzen dira. Hizkuntza hauek normalean ez dute preposiziorik erabiltzen, postposizioak baizik. Ordena hau erabiltzen duten hizkuntzen artean japoniera, koreera, kitxua eta euskara daude, besteak beste.

Hauek dira hizkuntza horietako adibide batzuk:

Japoniera:

私はりんごを食べます。

Watashi-wa ringo-o tabemasu

Nik-SUBJ sagarra-OSAG jan-A

“Nik sagarrak jaten ditut”

Latinez:

Caesar praetoribus epistulas dedit

Cesarrek-SUBJ pretoreei gutunak-OSAG eman-A

“Zesarrek pretoreei gutunak eman zizkien”

Euskaraz:

Nik zuhaitza ikusi dut

Nik-SUBJ zuhaitza-OSAG ikusi dut-A

Gaztelaniaz aldiz:

“Yo como manzanas” – SUBJEKTU-ADITZA-OSAGARRIA

“El Cesar dio las cartas a los pretores” – SUBJEKTU-ADITZA-OSAGARRIA

“Yo he visto el árbol” – SUBJEKTU-ADITZA-OSAGARRIA

Hala ere euskarak, hitzen ordenari dagokionez, malgutasuna dauka, SOA ordena neutroa erabiltzeaz gain beste ordena batzuk ere erabiltzen dituelako.

1.2. Euskararen hitz-ordena

Euskaraz komunikatzeko orduan, hitzen ordenak garrantzi handia dauka. Perpausek oinarrizko ordena dute, SOA (subjektu, osagarria, aditza). Hala ere, testuinguruaren arabera edo komunikatu nahi denaren arabera ordena hori aldatu egin daiteke hitz bati edo besteari garrantzia emanez. Beraz, euskara oinarrizko ordena duen hizkuntza eta ordena libreko hizkuntza dela esan genezake, nahiz eta bi baieztapen hauek kontrakoak direla dirudien.

SOA ordena duten perpausak neutroak edo ez-markatuak dira. Hau da, testuinguruarekiko mendekotasunik ez dute, galdera orokorrei erantzuna ematen diete, edo informazio orokorra eskaintzen dute.

Bestalde, ordena libreko hizkuntza dela esateak esaldi bateko hitzak ordena ezberdinetan erabil ditzakegula esan nahi du. Baina horrek ez du esan nahi ordena guztiak egokitzen har ditzakegula. Testuinguruaren arabera bata edo bestea erabiliko dugu. Hau da, erantzun nahi den galderaren arabera, edo garrantzitsutzat hartzen dugun informazioaren arabera ordena bat edo bestea erabiliko dugu. Mintzagaia eta galdegaia kontuan izanik ere ordena ezberdina izango da. Garrantzitsua dena, edo azpimarratu nahi duguna aditzaren aurretik jarriko dugu, eta *galdegai* izena hartuko du.

Hau da, galderaren erantzuna edo esaldi horretan nabarmendu nahi duguna aditzaren aurretik jarriko dugu. Horrela garrantzia ematen diogu.

Adibidez:

Markarik gabeko esaldi batean “*Gaur dilistak jan ditut*” esango genuke. Baina esaldi horren hitz-ordena aldatuz galdera bati edo besteari erantzuten diogu. Hau da:

- “Zer jan duzu gaur?” galderari erantzuteko “Dilistak jan ditut (gaur)” esan beharko genuke.
- “Noiz jan dituzu dilistak?” galderari erantzuteko “Dilistak gaur jan ditut” esan beharko genuke.

Hiru esaldi horiek hitz-ordena ezberdina duten arren, egokiak dira, euskaraz hitz egiterakoan testuinguruak garrantzi handia baitauka. Horregatik, ordena libreko hizkuntza dela esaten da.

Honetaz gain, “Gaur dilistak jan ditut” esan genezake “Zer jan duzu?” galderari erantzuteko. Ordena hau SOA ordenaren berdina da, baina neutroa izateaz gain, galderari erantzun ahal dio. Bi esaldi hauek (neutroa eta markatua) bereizteko intonazioa erabiliko da.

Aurrekoa kontuan izanik, euskarak edozein hitz-ordena onartuko duela pentsa genezake. Baina ez da egia. Nahiz eta testuinguruaren arabera edo igorleak adierazi nahi duenaren arabera ordena bat edo beste erabil dezakegun ordena batzuk ez dira onartzen. Adibidez: ezin dugu “nahi dut sagarra” esan. Hau da, aditza ez da aurrean jarriko.

Euskararen hitz-ordena hainbatetan aztertu da. Euskaltzaindiak, Euskal Gramatika liburuan (1987: 21-46) esaldi bakoitzean zein ordena erabili behar den azaltzen du. Ordena beti esan nahi denarekin lotuta egongo da eta, beraz, mintzagaia, iruzkina eta galdegaia kontuan izan beharko dira esaldi bat oker dagoen edo ez esan ahal izateko. Euskararen hitz-ordena dela eta esaldi asko, egoera desberdinetan, egokiak izan daitezke. Hala ere, batzuk ez dira inoiz onargarriak izango. Hitzen ordena, lehen aipatu bezala, markatua edo ez markatua izan daiteke.

Eusebio Osak (1990) ere gai honi buruz hitz egiten du. Euskarak hitz-ordena helburu komunikatibo batekin erabiltzen da eta hitz-ordena horren arabera finkatzen da aditzaren eta osagarrien arteko ordena, beste hizkuntza batzuek, aldiz, helburu gramatikalak dituzte hitz ordenaketa egiteko orduan. Beraz, perpausen forma aztertzeko horren funtzioa jakin behar dugu. Hau da, perpaus horren bidez komunikatu nahi dena jakin behar da zein ordena erabili behar den jakiteko. Bestalde euskarak ordena libre eta SOA (ordena neutroa edo ez markatua) erabiltzen dituela esaten du.

Honetaz gain galdegaiaren garrantzia azaltzen du. Galdegaia, galderaren erantzunaren atal berria da. Hau da, galdera egiten duen pertsonak jaso nahi duen informazioa. Galdera erantzuten duenak informazio gehiago eman dezake, esaldia kokatzeko, baina galdegaia aditzaren aurretik jarriko du gehien-gehienetan, nahiz ez beti.

1.3. Zenbait teoriariren usteak

Hizkuntzaren garapenaren inguruan, gramatikaren inguruan, euskararen inguruan eta hitz-ordenaren inguruan azterketa asko egin dira eta artikulu asko idatzi dira. Hala ere, lan honetarako teoriarari garrantzitsuenak hauek dira:

- NOAM CHOMSKY: Chomsky Estatu Batuetako hizkuntzalaria, filosofoa eta zientzialari kognitiboa da.

Norbanakoak hizkuntzaz jabetzeko prozesuari buruzko teoria berri bat aurkeztu zuen Hizkuntzaren ikuspuntu innatista dauka, hau da, hizkuntza gizakiaren jaio aurreko gaitasuntzat ulertzen du.

Chomskyk gramatika sortzailea izeneko hizkuntzalaritza eskola berria sortu zuen. Hizkuntza gizakiaren burmuinaren funtsezko ezaugarria dela dio, bestela haur guztiek epe labur batean (bi, hiru urte) hizkuntza bezalako ezagutza sistema bat bereganatzea ulertezina dela esaten du.

- RUDOLF DE RIJK: Rudolf de Rijk Herbehereetako hizkuntzalaria izan zen. Euskal gramatikan aditua zen. Bere tesiak (*Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*) gramatika sortzailearen eskolako hizkuntzalariren arreta erakarri zuen.

Euskarari buruzko hainbat alderdi landu zituen bere lanetan. Gramatika, sintaxia eta fonologiari buruzko hainbat lan idatzi zituen. Eta euskarazko hitz-ordenaren inguruko ikerketak ere egin zituen.

- LAFITTE: Piarres Lafitte Baionako apaiza, euskal idazlea, euskalaria, euskaltzaina eta kazetaria zen.

Literatura eta tradizio kulturala eta herrikoa aztertu zituen baina gramatikari buruz ere hitz egin zuen. Horri buruzko *Grammaire Basque (Navarro Labourdin Littéraire)* liburua idatzi zuen.

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

Euskal perpausaren osaera dela eta, nahiz eta hitzen ordena aldatu esanahia berdina izate daiteke Lafitten hitzez.

2. ALDERDI PRAKTIKOA

2.1. Materiala eta metodoak

Eskolako praktiketan euskararen hitz-ordena nola ikasten eta erakusten den aztertzeko aukera izan dut. Haur Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek egindako esaldiak aztertu ditut. 4 eta 5 urteko 33 ikasle behatu ditut. Horietatik bakarrik bik bik baizik ez dute euskara ama hizkuntzatzat eta beste zortzik etxean batzuetan hitz egiten dute (haien gurasoetako batek euskara badakielako eta batzuetan erabiltzen duelako). Guztiak Burlatan bizi dira. Behaketa eskola orduetan egin dut, batzuetan haurrek esaten zutena entzunez, elkarrizketan sartu gabe, eta besteetan haiekin hitz eginez. Eskolaren barnean hainbat esparrutan behatzeko aukera izan dut: gela arruntean, hamaiketako orduan, psikomotrizitate gelan eta informatika gelan. Esparru hauetan haurren arteko elkarreragina ezberdina da,; batzuetan librea da, besteetan aldiz irakasleak gidatua.

Hartutako esaldi guztiak hiru multzotan banatu ditut (baiezkoak, ezezkoak eta galderak), horrela hauen hitz-ordena aztertu ahal izateko.

Baiezko esaldien artean hiru sailkapen egin ditut. Lehenbizi galdera bati erantzuten diotenak eta, beraz, ordena neutroa edo SOA erabiltzen ez dutenak. Ondoren, aditza hasieran jartzen duten esaldiak, eta hauen artean bi talde bereizi ditut: aditz modalak erabiltzen dituztenak eta beste aditzak erabiltzen dituztenak. Azkenik beste esaldiak jarri ditut,; hauek ere bi taldeetan banatu ditut: sintagmak ordena ez egokian erabiltzen dituztenak eta beste taldeetan sartu ezin diren esaldiak.

2.2. Emaitzak eta haien eztatibada

Behaketaren bidez hartutako esaldiak aztertu eta zuzentzerakoan oso garrantzitsua da testuingurua ezagutzea, horren arabera hitz ordena bat edo bestea erabiliko baitugu. Haurrek esaldiak esan zituzten momentuan entzuteko aukera izan nuenez, testuingurua ezagutzen dut eta esaldi bakoitza esan zutenean, errealitatean zer adierazi nahi zuten imajina dezaket. Hori dela eta, hemen agertzen diren esaldiak testuinguruaren arabera zuzenduak izan dira, eta testuinguruaren azalpena bakarrik ulertzeko ezinbestekoa denean azalduko da. Esaldiak haurrek esan dituzten moduan

transkribatuak daude; hori dela eta, kasu batzuetan erdarazko hitzak edo gaizki esandako hitzak agertzen dira. Alboan aldaera zuzendua agertzen da.

2.2.1. Sailkapen batzuk

2.2.1.2. Baiezko perpausak

2.2.1.2.2. Galderen erantzunak

Hasteko galdera bat erantzuten duten baiezko perpausak ditugu, eta horrekin batera galdera, zuzenketa egokia dela ziurtatu ahal izateko.

1.Taula: galderen erantzunak

Galdera	Haurraren erantzuna	Zuzenketa
Zergatik bota zuten?	Zergatik egin zen zaharra	Zaharra egin zelako
Zergatik oiloa zen abeslaria?	Zergatik egiten zuen kukurruku	Kukurruku egiten zuelako
Zerekin jotzen du?	Jotzen du buztanarekin	Buztanarekin jotzen du
Zer da soinu hau?	Da puzker bat	Puzkerra da
Zer egingo duzu orain?	Orain egingo dut platera	Orain platera egingo dut
Zer egin zenuen Monkeyrekin?	Jolastu eta ere eman nion janaria	Jolastu nuen eta janaria eman nion
Zer egin zenuen atzo?	Jolastu futboleant nire patioan	Nire patioan futboleant ibili nintzen
Zer egin zenuen atzo?	Jolastu nuen futbolera Xabier, Agegnehu, Aimar eta Egoitzekin	Xabier, Agegnehu, Aimar eta Egoitzekin futboleant ibili nintzen
Zer gertatu da?	Nik jan dut partxiseant fitxa Markeli eta bera haserretu da	Partxiseant Markelen fitxa jan dut eta bera haserretu da
Zer da?	Kutxa bat esnea barruan duena	Esnea barruan duen kutxa
Nor da makinista?	Naiz ni makinista	Ni naiz makinista
Zer egin zenuen atzo?	Jan bizkotxoa nire amarena	Nire amaren (nire amak egindako) bizkotxoa jan nuen

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

Zer egin zenuen atzo?	Nik konpratu cereales barrutik txokolate dute	Barrutik txokolatea duten laboreak erosi nituen
Zer egin zenuen atzo?	Nik atzo ikusi dut Sofiaren ipuina	Sofiaren ipuina ikusi nuen atzo
Zer esan dizu medikuak?	Eman du medizina bat eta begiratu du eta eman du puxika bat	Botika bat eman dit, begia begiratu dit eta puxika bat eman dit
Nork dauka zure txartela?	Dauka Edurne	Edurnek dauka
Zer da hori?	Hau da kaka bat palomarena	Uso kaka da
Zer egiten zuten?	Pasatzen ziren janaria	Janaria elkarri pasatzen zioten
Zer gertatzen zitzaion?	Gustatzen zitzaion beste janaria	Beste janaria gustatzen zitzaion
Zer egiten du behiak?	Eman esnea txekorrari	Txekorrari esnea eman dio
Zer jaten dute behiek?	Jaten dute loreak	Loreak jaten dituzte
Zer egin zuen?	Erakutsi zion huesoa	Hezurra erakutsi zion
Zer egin zenuen atzo?	Nik atzo ikusi nuen Agegnehuri	Agegnehu ikusi nuen atzo
Non dago Agegnehu?	Agegnehu dago etxean	Agegnehu etxean dago
Zer egin zenuten?	Geratu pixka bat korroan	Biribilean pixka bat geratu ginen
Zer egin zenuen?	Jolastu patioan	Patioan jolastu nuen
Zertara joango gara?	Egitera bideo bat	Bideo bat egitera joango gara
Non dago?	Dago komunean	Komunean dago
Nor etorriko da zure bila?	Etorriko da nire bila nire ama	Nire ama etorriko da nire bila
Zer egin zenuen atzo?	Atzo joan zinen aitarekin, amarekin eta Uxuerekin Zaragoza	Aitarekin, amarekin eta Uxuerekin Zaragozara joan nintzen atzo
Zertara joan zinen?	Lagun bat ikusi deitzen da David	David izena duen lagun bat ikustera
Zer egin zenuen atzo?	Nire aitatxo joan Sevilla	Nire aitatxo Sevillara joan zen
Zer egin zenuen asteburuan?	Ni joan naiz Santakara	Santakarara joan nintzen
Zer egin zenuen asteburuan?	Bi partiduak ikusi balonmanorena	Eskubaloiko bi partidak ikusi nituen

Zer egin zenuen asteburuan?	Jolastu patioan	Patioan jolastu nuen
Zer egin zenuen asteburuan?	Ni joan nintzen nire lehengusuari ikustera jolastu pilotara, eta etorri zen nire amona	Nire lehengusua pilotan ibiltzen ikustera joan nintzen eta nire amona etorri zen
Zer egin zenuen asteburuan?	Joan nintzen ni amatxorekin amonaren etxera jolastera	Amatxorekin amonaren etxera jolastera joan nintzen
Non dago?	Dago saguzarrean	Saguzarrean dago
Nola dakizu zurea dela?	Zergatik nire azkeneko letra abizenaren da "Z"	Nire abizenaren azkeneko letra "Z" delako
Zer egin zenuen atzo?	Nik ikusi nuen Edurneri	Edurne ikusi nuen
Norena da liburu hau?	Da nirea	Nirea da
Non dago?	Joan da pixa egitera	Pixa egitera joan da
Zergatik joango zara etxera?	Zergatik nago gaixorik	Gaixorik nagoelako

Esaldi hauetan ikusten den moduan akatsik nagusiena gaztelaniaz hitz egiterakoan erabiltzen den ordena bera erabiltzea da. Kontutan izan gabe euskararen ordena ezberdina dela eta galderak erantzuterakoan garrantzitsuena, edo galdetzen digutena, aditzaren aurretik jarri behar dugula. Hau da, galdegaia kontutan izan behar dela.

Askotan errepikatzen duten beste akats bat aditz laguntzailea ez erabiltzea da. "Jolastu", "jan", "ikusi"... aditzak erabiltzen dituzte "nuen", "nituen"... erabili gabe. Beraz, aditza ez dute modu egokian erabiltzen, aditzaren zati bat falta zaielako.

Honetaz gain, "zergatik" erabiltzen dute "-lako" erabili beharrean, berriz ere gaztelaniako ereduak imitatuz. Nahiz eta euskaldun askok *zergatik* erabiltzen duten, haurrei *-elako* erakusten zaie.

Beraz, esaldi hauei dagokienez, gaztelaniak eragina dauka hitz-ordenan.

2.2.1.1.2. Aditza hasieran dutenak

A) Aditz-modalak

2.Taula: aditz modalak esaldiaren hasieran

Haurraren esaldia	Zuzenketa
Nahi dut eguzkia margotu	Eguzkia margotu nahi dut
Nahi dut egin pixa	Pixa egin nahi dut
Nahi du egin etxe bat	Etxe bat egin nahi du
Nahi dut papera	Papera nahi dut
Nahi dut jolastu	Jolastu nahi dut
Egin behar dugu berdina	Gauza bera egin behar dugu
Nahi dut marroia	Marroia nahi dut
Nahi dut jolastu beste jolas batera	Beste jolas batean jolastu nahi dut
Nahi dut kolore hori	Kolore hori nahi dut
Behar dut kolorea	Kolorea behar dut
Nahi dut pixa egin	Pixa egin nahi dut
Nahi dut txokoa aldatu	Txokoz aldatu nahi dut
Nahi dugu egin handiagoa pizina	Igerilekua handiagoa egin nahi dugu
Nahi dut hartu	Hartu nahi dut
Nahi dut ikusi liburua	Liburua ikusi nahi dut
Nahi dut idatzi Nagore	Nagore idatzi nahi dut
Nahi dut jarri Nagore	Nagore jarri nahi dut
Nahi ditut tijerak	Guraizeak nahi ditut
Nahi dut txaketa kendu	Txaketa kendu nahi dut
Egin behar dugu laua	Lau zenbakia egin behar dugu
Nahi dut kendu txaketa	Txaketa kendu nahi dut
Nahi dut txaketa kendu	Txaketa kendu nahi dut
Nahi dut joan nire gelara	Nire gelara joan nahi dut
Nahi dut juegoa disfrazatu	Mozorroen jolasa nahi dut
Nahi dut aplastatu	Zanpatu nahi dut
Nahi dut laguntza	Laguntza nahi dut
Nahi dut jolastu ordenagailu txokoan	Ordenagailu txokoan jolastu nahi dut
Nahi dut utzi mantala	Mantala utzi nahi dut

Nahi dut lagundu zuri	Zuri lagundu nahi dizut
Nahi dute bakarrik	Bakarrik egon nahi dute
Nahi dut tocatu hau	Hau ukitu nahi dut
Nahi dut papera	Papera nahi dut
Nahi dut kendu	Kendu nahi dut
Ahal duzu urdina, berdea, txuria margotu	Urdina, berdea eta zuria margotzen ahal duzu
Nahi dut jolastu antzarara	Antzaran jolastu nahi dut

Adibide hauetan ikusten den bezala aditz modalak hasieran jartzen dituzte, gaztelanian erabiltzen den hitz-ordena berdina erabiliz. “Pixa egin nahi dut”, “Ura edan nahi dut” eta antzeko esaldiak, egunero errepikatzen direnak, modu egokian egiten dituzte, irakasleak gaizki esaten duten bakoitzean zuzentzen dielako eta zuzenketa hori errepikatzearen ondorioz ongi egiten dutelako. Baina egitura bera duten esaldiak egin behar dituztenean gaztelaniako ordenara bueltatzen dira, ikasitako egitura erabili beharrean eta “nahi dut”, “behar dut” ... hasieran jartzen dituzte.

Akats hau “nahi dut” erabili behar duten guztietan gertatzen da (lehen aipatutako eta egunero errepikatzen diren esaldietan izan ezik). Beren lehen hizkuntzako egitura finkatua dute, euskaraz okerra dena, eta akatsa behin eta berriz errepikatzen dute. Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zait hori zuzentzea, eta esku-hartzean horretarako jarduera bat prestatu dut.

B) Beste aditzak

3.Taula: aditza esaldiaren hasieran

Haurraren esaldia	Zuzenketa
Dago hor Burlatan gauza bat behiarena	Burlatan behien gauza bat dago
Esan du gezur bat Iraiak	Iraiak gezurra esan du
Egin nuen korrika zezen batekin gurpilekin	Gurpileak zituen zezen batekin korrika egin nuen
Da jolasa bat	Jolas bat da

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

Da benetakoa janaria	Benetako janaria da
Daukat pared bat	Pareta bat daukat
Da luzea	Luzea da
Daude lore batzuk nik egin nuena	Nik egin nituen lore batzuk daude
Da Puyol defentsa hoberena	Puyol da atzelaririk hoberena
Ekarri dut belkroa	Belkroa ekarri dut
Etorri da Urtzi	Urtzi etorri da
Naiz bokata bat	Bokata bat naiz
Da zaila	Zaila da
Eman ziguten esnea	Esnea eman ziguten
Izan da Ekaitz	Ekaitz izan da
Daukazu bi	Bi daukazu
Dut behia	Behia dut
Ditut behiak	Behiak ditut
Naiz aita	Aita naiz
Egon zara etzanda	Etzanda egon zara
Daukat kartel bat osasunarena	Osasunaren kartel bat daukat
Joan da beste eskola batera	Beste eskola batera joan da
Gastatu zait mandarina	Mandarina gastatu zait
Erori da eskaileretan	Eskaileretan erori da
Nago marrazkiak egiten	Marrazkiak egiten ari naiz
Egin dut ilargia	Ilargia egin dut
Falta da gutxi hilabetea bukatzeko	Hilabetea bukatzeko gutxi falta da
Ekarri dut txapa futbolarena	Futboleko txapa ekarri dut
Nago nekatuta	Nekatuta nago
Irabazi du Barsak	Barsak irabazi du
Margotu ditut labioak	Ezpainak margotu ditut
Bilatu behar dugu behia, txekorra eta zezena	Behia, txekorra eta zezena bilatu behar ditugu
Jartzen du txekorra	Txekorra jartzen du
Dira hauek puntutxoak	Puntutxo hauek dira
Egin dut aurpegi bat	Aurpegi bat egin dut
Dago mozorrotua	Mozorrotua dago
Dago hemen kutxa	Kutxa hemen dago

Dut asko tokia	Toki asko dago
Bizi ziren denak elkarrekin	Denak elkarrekin bizi ziren
Da 22an nire urtebetetzea	nire urtebetetzea 22an da
Daukat bakarrik bi	Bakarrik bi dauzkat
Egin ditugu bi granja	Bi baserri egin ditugu
Daukat hiru	Hiru dauzkat
Daukat lau	Lau dauzkat
Egin dut dorre bat	Dorre bat egin dut
Ari naiz trabajatzten	Lan egiten ari naiz
Da aita	Aita da
Ikusiko dut hau	Hau ikusiko dut
Nik daukat luzea mauka	Nik mahuka luzea daukat
Dago apurtuta	Apurtuta dago
Jan zuten txoriek	Txoriek jan zuten
Falta da pila	Pila falta zaio
Ikusten behatz lodia	Behatz lodiari begiratzen
Ikusi dut Mikel	Mikel ikusi dut
Dago haserre aitona	Aitona haserre dago
Dago lekua	Lekua dago
Dago egiten tonterriak	Txorakeriak egiten ari da
Dago okupatuta	Beteta dago
Da Messirena	Messirena da
Da zortzi	Zortzi da
Falta da zati bat honetakoa	Honen zati bat falta da
Falta da zirkulu bat horrela	Horrelako zirkulu bat falta da
Dagoen hilda	Hil zen
Egin dut Jupiter	Jupiter egin dut
Duzu zuk	Zuk duzu
Geratu dugu 3-10 nik irabazten	3-10 geratu gara, nik irabazi dut
Falta zaizue zapatila berdinak	Zapatila berdinak falta zaizkizue
Ikusi dut Anuska	Anuska ikusi dut
Jarri dut nire izena al revés	Nire izena alderantziz jarri dut
Falta da bat, bakarrik sartzen da bat letra	Bat falta da, bakarrik letra bat sartzen da
Egin duzu niri mina Naiara	Naiara, mina egin didazu

Da handia	Handia da
Egin dute pareta	Pareta egin dute
Da broma bat	Broma bat da
Apartatu behar dugu familia han bestela aplastatuko direla	Familia urundu behar dugu, bestela zanpatuko dute
Egiten ari naiz bola bat super handia	Bola handia egiten ari naiz
Egin horrela	Horrela egiten da
Da handiago	Handiagoa da
Naiz zezena bat	Zezen bat naiz
Encontratu dut gauza bat	Gauza bat aurkitu dut
Harrapatu dut Ekhiñeri	Ekhiñe harrapatu dut
Daukazu beste bat	Beste bat daukazu
Ekarri dut behiaren gauza batzuk, daude hemen	Behiaren gauza batzuk ekarri ditut, hemen daude
Nago nire txokoan	Nire txokoan nago
Galdu zait niri hau	Niri hau galdu zait
Dauka nire anaia etxean	Nire anaiak etxean dauka
Esan dut nik	Nik esan dut
Bota du labera	Labera bota du
Egin naiz mina hemen	Mina hemen hartu dut
Bukatu dut fruta	Fruta bukatu dut
Ikusi dut zuri eskaileretan	Eskaileretan ikusi zaitut
Egin dut kolpe bat hemen	kolpea hemen hartu dut
Daukat bakarrik sagarra	Bakarrik sagarra daukat
Dago egiten labirinto bat	Labirintoa egiten ari da
Aplastatu dute hau	Hau zanpatu dute
Eramaten du zure kutxa	Zure kutxa darama
Da oso handia	Oso handia da
Dago hor	Hor dago
Ekarri dut hau bokata	Bokata hau ekarri dut
Da navidad	Eguberria zen
Mandatzen du zure ama eta zure aita eta handiak	Zure amak, zure aitak eta nagusiek agintzen dute
Hasiko da hemendik	Hemendik hasiko da

Subitu hemen	Hona igo
Dago Olatz	Olatz dago
Dago alderantziz	Alderantziz dago
Gara hiru	Hiru gara
Esan dit nire amak eta nire ahizpak	Nire amak eta nire ahizpak esan didate
Dago arropa	Arropa dago
Dago tienda bat	Denda bat dago
Idatzi dut izena eta abizena	Izena eta abizena idatzi ditut
Jarri dugu 21 arrosa eta 4 morea	21 letra arrosa eta 4 letra more jarri ditugu
Ekarri du Itziar	Itziarrek ekarri du
Nago egiten baina oso handia	Egiten ari naiz, baina oso handia da
Dauka Itziar baina beste aldean	Itziarrek dauka baina beste aldean
Egin dago tarta	Tarta egiten ari naiz
Entzun dut zuri	Zu entzun zaitut
Egin behar dut gauza bat jartzeko tartan	Tartan jartzen den gauza bat egin behar dut
Da eraikuntza txokoarena	Eraikuntza txokokoa da
Esaten du koketa	“Koketa” esaten du
Zegoen itxita	Itxita zegoen
Joan nintzen egun batean boloetara	Egun batean boloetan aritzera joan nintzen
Egingo dut hau	Hau egingo dut
Dauka bere habitacion	Bere logela dauka
Daude karratu batzuk horrela eta margotzen ditu	Horrelako karratu batzuk dauzka eta margotzen ditu
Zegoen gorria atzo	Atzo gorria zegoen
Daude jartzen estanteriak	Apalak jartzen ari dira
Dago nudo bat	Korapilo bat dago
Bukatu dut lehenengoa	Lehenengoa bukatu dut
Dauka elurra bidean	Bidean elurra dago
Egin dugu asko korrika	Korrika asko egin dugu
Da super facil esnea	Esnea aurkitzea oso erraza da
Da aita eta hau kumea	Hau aita da eta hau kumea

Da etxea hau cabrarena	Ahuntzaren etxea da hau
Da nocillarena bokata	Bokata nocillarena da
Da zezena	Zezena da
Da lehenengo hau	Hau lehenengoa da
Da txikia	Txikia da
Falta zait bi	Bi falta zaizkit
Bilatu dut hau	Hau bilatu dut
Da nirea	Nirea da
Egin du "a" Asier horrela	Asierrek "a" horrela egin du
Egin du tonteriak	Txorakeriak egin ditu
Da corazon bat	Bihotza da
Egin dut hiru aldiz oka	Hiru alditan oka egin dut
Dut pegatina	Pegatina bat dut
Da tocatzeko	Ukitzeko da
Da nirea	Nirea da
Gustatzen da asko nire liburua	Nire liburua asko gustatzen zaie
Egingo dugu abestia	Abestia egingo dugu
Nago bilatzen hau	Hau bilatzen ari naiz
Dago negarrez	Negarrez dago
Nago nekatuta nik	Ni nekatuta nago
Da nire urtebetetzea	Nire urtebetetzea da
Dauka ura	Ura dauka
Esan du euskeraz	Euskaraz esan du
Nago azkenarekin	Azkenarekin nago
Zegoen barraskiloa bezala	Barraskiloak bezala zegoen
Dago alderantziz	Alderantziz dago
Joan da nire burua	Nire burua joan da

Adibide hauetan ere argi ikus daiteke gaztelaniako ordena erabiltzen dutela euskaraz erabili behar dena ahaztuz. Aditza esaldiaren hasieran jartzen dute. Akats hau batez ere egoera bat edo objektu bat deskribatzerakoan izaten dute eta hori dela eta, aditz modalen esaldiak zuzentzeko erabil daitekeen jarduera bera erabiliz, gutxinaka moldatuz, akats hau zuzentzen saia gaitezke.

2.2.1.1.3. Bestelakoak

A) Sintagmak

4.Taula: sintagmak

Haurren esaldia	Zuzenketa
Nik daukat antzara etxean nire amonarena	Nik nire amonaren etxean antzara daukat
Nik dut hau abestia bideoan Pirritx eta Porrotxena	Pirritx eta Porrotxen bideoan abesti hau daukat
Nik daukat porteria bat playmobilena	Playmobilen ate bat daukat
Nik dut partxis Elmorena	Elmoren partxisa daukat
Nire amonaren etxean daukat bideo asko Heidirena	Nire amonaren etxean Heidiren bideoak dauzkat
Xabier dauka kamiseta Lacturalerena	Xabierrek Lacturaleren kamiseta dauka
Kareta bat Spidermanena	Spidermanen kareta bat
Esque nik dut txapa bat Gormitirena	Gormitiren txapa bat dut
Hori txerrikumeak han dagoena lehen	Lehen han zeuden txerrikumeak
Hori da abestia nire primoarena	Hori nire lehengusuaren abestia da
Nik daukat arropa guztia nire ekipokoa	Nire taldeko arropa guztia daukat
Ze ongi egin dut hori puzzle	Zer ongi egin dudan puzzle hori!
Edo eskola nire ondoarena	Edo nire etxe ondoko eskola
Neska bat musikara joaten da ere joaten da horretara eskola	Nirekin musikara doan neska bat eskola horretara doa
Nik hemen ikusi dut zegoen neska	Nik hemen zegoen neska ikusi dut
Nik dut poltsa bat Angry Birdsena	Angry Birdsen poltsa bat dut
Atzo ikusi dut pelikula bat Batmanena	Atzo Batmanen pelikula bat ikusi nuen
Zaila da hau labirintoa	Labirinto hau zaila da
Baina nik badakit egin hau labirintoa	Baina nik badakit labirinto hau egiten
Es que azkeneko diak ahaztu zait hartzea hau poltsa	Azkeneko egunetan poltsa hau hartzea ahaztu dut
Nire bi lehengusuak du asko playmobil	Nire bi lehengusuek playmobil asko dituzte
Ba nire aita kantatu du hori abestia	Nire aitak abesti hori abestu du

Nik badakit nola den hau bidea	Nik bide hau nola den badakit
Ni dut egutegi bat etxean Ermitaberri	Nik etxean Ermitaberriko egutegi bat dut
Nik daukat egutegi bat Pirritx eta Porrotxena	Nik Pirritx eta Porrotxen egutegi bat daukat
Nire uñak hauek bi daukat luzeak	Bi azazkal hauek luzeak dauzkat
Nire izeba du etxe bat berria eta dago Amaiaren parean	Nire izebaren etxe berria Amaiaren etxearen parean dago
Hau da etxea dinosaurioarena	Hau dinosaurioen etxea da
Hau granjeroa jiratzten puerta	Baserritar honek atea jiratzten du
Hau da granjeroa animaliena eta hau vigilanziarena	Hau animalien baserritarra da eta beste hau zaintzailea
Nik bakarrik eraman bat pertsona Eta zuk denak animaliak	Nik pertsona bakarra eramango dut eta Zuk animalia guztiak
Bakarrik bat gauza	Bakarrik gauza bat
Hau da sumendia Martitzena	Hau Martitzen sumendia da

Esaldi hauetan hurrek determinatzaileak, izenlagunak eta izenondoak egokia ez den ordenan erabiltzen dituzte. Izenlagunak izenaren aurrean jarri behar ditugu, eta hurrek, hemen agertzen diren esaldietan izenaren atzean jartzen dituzte (pelikula Batmanena, poltsa Angry Birdsena...). Izenondoak berriz izenaren atzean jarri behar ditugu, eta adibideetan kontrakoa ikusten da.

Hitz hauek ordena okerrean jartzen dituztenean esaldi osoan eragina izaten du, eta, beraz, perpaus osoaren hitz-ordena gaizki erabiltzen dute.

Euskaraz, esaldi baten ordenan hitz-ordenaketa ezberdinak egin ahal ditugun arren, sintagmaren barruko osagaiak beti ordena berean jarri behar ditugu. Hau da, esaldi batean sintagmen ordena aldatuko dugu, baina inoiz ez da sintagmen barruko ordena aldatuko. Beraz, multzo honetan agertzen diren hutsak oso garrantzitsuak dira, testuingurua edozein izanda ere eta esaldia edozein izanda ere, oker egongo baitira.

B) Bestelakoak

5.Taula: bestelakoak

Haurraren esaldia	Zuzenketa
Txekorra edaten esnea dago	Txekorra esnea edaten ari da
Hau da nirea	Hau nirea da
Eta nik dut hiru "1"	Nik hiru "1" dauzkat
Nik jan behar ditut bi	Nik bi jan behar ditut
San Ferminetan ateratzen dira zezenak	Zezenak sanferminetan ateratzen dira
Nik daukat zezen bat gurpil batekin nire etxean	Nire etxean gurpildun zezena daukat
Nik erosi dut zapatila bat.	Nik zapatilak erosi ditut
Mutilak bota zuen ura pistola batekin	Mutilak pistola batekin ura bota zuen
Eta ureztatzen loreak	Eta loreak ureztatzen
ya pasatu dira minutuak	Ja minutuak pasatu dira
Nik dut antzararen jolasa nire etxean	Nire etxean antzararen jolasa daukat
Gaur daukagu nire gelakoak inglesa	Nire gelakoek gaur ingelesa daukagu
Gaur arratsaldean jolasten da txokoan gu	Guk gaur arratsaldean txokoetan jolastuko dugu
Nik daukat ipuin hori nire etxean	Nire etxean ipuin hori daukat
Ni naiz sukaldaria	Ni sukaldaria naiz
Hau da arrautza bat	Hau arrautza da
Maiderekin egin du tranpa	Maiderekin tranpa egin du
Nagorekin egin du horrela	Nagorekin horrela egin du
Maiderekin egin du horrela	Maiderekin horrela egin du
Nik egun batean egin dut erloju bat	Nik egun batean erloju bat egin nuen
Nik daukat tablet bat nire etxean	Nire etxean tablet bat daukat
Ni naiz semea	Ni semea naiz
Nik dut gitarra bat eta txistu bat	Nik gitarra bat eta txistu bat dauzkat
Nik daukat Osasunako arropa guztia	Nik Osasunako arropa guztia daukat
Nik daukat mandarina bat	Nik mandarina bat daukat
Ni naiz ama	Ni ama naiz
Ni nago hemen	Ni hemen nago
Ya dago bilduta nire txokoa	Nire txokoa ja bilduta dago

Hau da lau	Hau lau da
Asteartean, asteazkenean eta ostegunean etortzen da nire aita ikastera	Asteartea, asteazkenean eta ostegunean nire aita ikastera etortzen da
Hau da etxea	Hau etxea da
Nirea da camino bat	Nirea bide bat da
Nirea da lorea	Nirea lorea da
Hori dauka hiru	Horrek hiru dauzka
Orain margotu horia	Orain horia margotuko dut
Nire ama txikia zenean zituen behiak	Nire amak, txikia zenean, behiak zituen
Nire izeba deitzen da Edurne	Nire izeba Edurne deitzen da
Hori da gure pagina	Hori gure orria da
Ahatea da txuria	Ahatea txuria da
Hau da nirea	Hau nirea da
Enekok eman dit begian	Enekok begian eman dit
Okupatuko du guztia	Guztia beteko du
Nire amatxok etorriko da nire bila eta nire amatxi. Eta nire amatxik emango du niri huevo kinder	Nire amatxo eta nire amatxi nire bila etorriko dira. Eta nire amatxik kinder arrautza emango dit
Nire amona joan zen egun batean vacaciones	Nire amona egun batean oporretara joan zen
Ba navidad dela ba nire lagunak etorriko da nire etxera	Nire lagunak eguberrietan nire etxera etorriko dira
Nire amatxok compratu ditu zapatila berriak hauek	Nire amatxok zapatila berri hauek erosi dizkit
Eneko daukagu erlijio	Eneko, erlijioa daukagu
Miriam kendu txaketa	Miriam, txaketa kendu nahi dut
Ni zegoen hemen	Ni hemen nengoen
Badakit eman behar dut buelta	Badakit buelta eman behar diodala
Ya nago nire txokoan	Nire txokoan nago ja
Edurne daukat zapatilla berriak	Edurne, zapatila berriak dauzkat
Hau da handia	Hau handia da
Buztana hemen jartzen du	Hemen buztana jartzen du
Zu zara Olatz	Zu Olatz zara

Es que asteartean esan dit nire anaiak	Nire anaiak asteartean esan zidan
Guek empezatu horrela	Gu horrela hasten gara
Ni nahi dut dominora	Nik dominoan aritu nahi dut
Ni nahi dut jolastu dominora lehenengo	Nik lehenengo dominoan aritu nahi dut
Bakarrik lau egun bukatzeko calendarioa	Egutegia bukatzeko lau egun falta dira
Nik 1 edo 2 urte zenean joan zinen Lacturalera	Urte bat edo bi urte nituenean Lacturalera joan nintzen
Nire amona bizi da Txantrean	Nire amona Txantrean bizi da
Ni joan naiz Txantreara erraldoiak ikustera	Ni Txantreara erraldoiak ikustera joan naiz
Ni nahi dut berriro	Nik berriro nahi dut
Ni naiz hau	Ni hau naiz
Nik inbentatu dut jolasa	Jolasa nik asmatu dut
Ni naiz lehenengoa	Ni lehenengoa naiz
Hau dago bustita	Hau bustita dago
Hau da handia	Hau handia da
Ni dut ura	Nik ura daukat
Hau da etxea	Hau etxea da
Nirea da hau	Hau nirea da
Arrosa zegoen hor jarrita eta hartu du Egoitz	Arrosa hor jarrita zegoen eta Egoitzek hartu du
Hau da pizina	Hau igerilekua da
Hemen encontratu dut hau	Hemen hau aurkitu dut
Aimar hauek dira gure kotxeak	Aimar, hauek gure kotxeak dira
Berak egin dit horrela	Berak horrela egin dit
Hau da guretzako	Hau guretzat da
Hau da gure etxea	Hau gure etxea da
Hau da etxea	Hau etxea da
Eta hau da zaldi bat	Hau zaldi bat da
Hori da nirea	Hori nirea da
Bakarrik falta da bat bukatzeko apirila	Egun bakarra falta da apirila bukatzeko
Nire amatxoren lagun bat bizi da Zaragozan	Nire amatxoren lagun bat Zaragozan bizi da

Zure berokia dago lurrean	Zure berokia lurrean dago
Zu zara ultimo	Zu azkena zara
Ni nago prest	Ni prest nago
Nik jarriko dizuet izenak	Izenak nik jarriko dizkizuet
Eta nik daukat kamiseta	Nik kamiseta daukat
Nik daukat reloja	Nik erlojua daukat
Hori da odola	Hori odola da
Zuk margotu horrela	Zuk horrela margotu behar duzu
Hau da eskua	Hau eskua da
Ni naiz amatxo	Ni amatxo naiz
Nik daukat grapatuta	Nik grapatua daukat
Hemen dago lago bat eta hemen elurra	Hemen laku bat dago eta hemen elurra
Bihar dugu festa	Bihar festa daukagu
Zezena nahi du pillatu pertsonak	Zezenak pertsonak harrapatu nahi ditu
Nik hartu dut lehenengoa	Nik lehenengoa hartu dut
Hau da diferentea	Hau ezberdina da
Eta hau da atea	Hau atea da
Nik ikusten dut alderantziz baina dago ongi	Nik alderantziz ikusten dut baina ongi dago
Guk sakatu dugu cosa asko	Guk gauza asko atera ditugu
Nik ekarri dut bi Spiderman	Nik bi Spiderman ekarri ditut
Eta hau daukat kotxean	Hau kotxean daukat
Nirea dago hor	Nirea hor dago
Zuk duzu hiru	Zuk hiru dituzu
Hau dago altxatuta pixka bat	Hau pixka bat altxatua dago
Ni joan zinen Ekhiñe eta Nagorerekin Txantreara	Ni Ekhiñe eta Nagorerekin Txantreara joan nintzen
Ni joan nintzen Saioarekin eta dauka 3 urte	Ni Saioarekin joan nintzen eta hiru urte dauzka
Nire anaia dauka calendario bat	Nire anaiak egutegi bat dauka
Nik etxean daukat calendario bat	Nik etxean egutegi bat daukat
Hau da tulipanak	Hauek tulipanak dira
Bakarrik behar dugu berdea	Bakarrik berdea behar dugu
Hauek dira arrautzak	Hauek arrautzak dira

Hauek dira nireak	Hauek nireak dira
Hau zegoen hemen	Hau hemen zegoen
Amaia dago margotzen arbola	Amaia arbola margotzen ari da
Baina da oso mugitua	Baina oso mugitua da
Ni nahi dut margotu	Nik margotu nahi dut
Ni joango naiz Egoitzekin Txantreara	Ni Egoitzekin Txantreara joango naiz
Nik dut laranja	Nik laranja daukat
Hau da graciosoa	Hau barregarria da
Nik nahi dut eseri	Nik eseri nahi dut
Naiara esango du izenak	Naiarak izenak esango ditu
Ni naiz makinista	Ni makinista naiz
Hori da tranpa	Hori tranpa da
Egoitz jarri du gona	Egoitzek gona jarri du

Esaldi hauek aurreko sailkapenetan sartu ezin direnak dira. Hauetan ordena ezberdinak erabiltzen dituzte haurrek. Hasteko, kasu batzuetan (aurreko sailkapenetan bezala) haurrek gaztelaniako ordena erabiltzen dute eta horregatik “hori da tranpa” esaten dute, “eso es trampa”-ren ordena bera erabiltzen dutelako.

Baina beste kasu batzuen ordena nondik etortzen den jakitea zaila da. Ordena hori ez baita euskarazkoa ez gaztelaniakoa. Adibidez “Txekorra edaten esnea dago” esaldian gaztelania ez da ordenaren zergatia. Hizkuntzaren garapenaren momentu honetan haurrak ordena hori erabili duela esan dezakegu, inolako eraginik gabe, eta hazkuntza edo garapenarekin batera zuzenduz joango dela.

2.2.1.2. Ezezko perpausak

6.Taula: ezezko perpausak

Haurraren esaldia	Zuzenketa
Zergatik ez dago ninia	Ninia ez dagoelako
Ez esan du apatx	Ez du apatx esan
Martin ez etxera monkey	Martinek ez du Monkey etxera eraman

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

Ez dut nahi gehiago	Ez dut gehiago nahi
Zuk ez daukazu pilak	Zuk ez duzu pilarik
Ez nahi dut gehiago	Ez dut gehiago nahi
Nik ez dut empezatu	Ni ez naiz hasi
Ez dut llogatzen	Ez naiz iristen
Horrela ez daukagu planetak, gorria ez daukagu horrela	Guk planetak ez ditugu horrela, gorria ez daukagu horrela.
Bai zeren ez da etorri Mainer	Bai, Mainer etorri ez delako
Ez dut lekua	Ez dut lekurik
Nik ez dut ikusten ezer	Nik ez dut ezer ikusten
Ez nahi dut gehiago	Ez dut gehiago nahi
Nik ez ekarri dut ezer ez	Nik ez dut ezer ekarri
Ez egin dut farra	Ez dut barre egin
Monkey ez du eraman Olatz	Olatzek ez du Monkey eraman
Nik ez dago prestuta, hartu baloia	Ni ez nago prest, baloia hartzea falta zait
Ez du borratzen	Ez da ezabatzen
Ez du nahi etorri eskolara	Ez du eskolara etorri nahi
Nik ez dut zorriak	Nik ez dut zorriak
Ez errepikatu niri Itziar	Itziar, ez errepikatu nik esaten dudana
Ez inor egongo da eskolan	Ez da inor eskolan egongo
Zeren atzo etorri zinen eta ez zigun eman denbora egiteko gauzak	Atzo etorri zirelako eta gauzak egiteko denborarik ez genuen izan
ez dakit egin lorea	Ez dakit lorea egiten
Ez dut ikusten txoria	Ez dut txoria ikusten
Nik ez dut ikusten hau	Ez dut hau ikusten
Nik ez dut ikusten ongi	Ez dut ongi ikusten
Orain ez ingelesean gaude	Orain ez gaude ingelesean
Ni ez nahi dut hemen	Nik ez dut hemen nahi
Ez nahi dut	Ez dut nahi
Gero zuk gelan hemen ez	Gero zu ez zara gure gelan egongo
Nik ez nahi dut	Nik ez dut nahi
Ez da ezer hori	Hori ez da ezer
Ni ez daukat kutxa	Nik ez dut kutxarik
Ez dauka eguzkia eskua	Eguzkiak ez dauka eskurik

Ez nahi dut margotu gehiago	Ez dut gehiago margotu nahi
Hau ez nahi dut	Hau ez dut nahi
Nagore ez nahi du jantzi	Nagorek ez du jantzi nahi
Ez dago Maider	Maider ez dago
kasko bat ez egiteko mina buruan	Buruan mina ez egiteko kasko bat
Ez nahi dut gehiago	Ez dut gehiago nahi
Ez dut nahi gehiago	Ez dut gehiago nahi
Ez da utzi pakean	Ez nau pakean uzten
Ez zait sartzen gehiago	Ez zait gehiago sartzen
Nik ez nahi dut margotu gehiago	Ez dut gehiago margotu nahi
Ez bizi da Burlatan	Ez da Burlatan bizi
Dutenak marrak horrela ez	Horrelako marrak ez dituztenak
Ez nahi du	Ez du nahi
Ez egin dut ezer ez	Ez dut ezer egin
Eneko ez du dejatzen ordenagailua	Enekok ez du ordenagailua uzten
Ez dut egin korrika	Ez dut korrikarik egin

Ezezko esaldiekin baiezkoezin gertatzen den gauza bera gertatzen da. Gaztelaniak eragina dauka hiztun hauen artean eta euskarazko hitz-ordena erabili beharrean erdarazko egitura jarraitzen dute.

Bestalde, kasu batzuetan, baiezko esaldiari hasieran “ez” hitza jartzen diote beste edozein aldaketarik egin gabe, eta horrela ezezko esaldia egin dutela pentsatzen dute.

2.2.1.3. Galderak

7.Taula: galderak

Haurraren esaldia	Zuzenketa
Gure gelakoak ia dago gure gelan?	Gure gelakoak gure gelan daude ja?
Edo daukazu tortila bat hemen?	Edo hemen tortila bat daukazu?
Da pegatinak?	Pegatinak dira?
Nahi duzu jolastu?	Jolastu nahi duzu?
Nahi duzu margotzea?	Margotzea nahi duzu?

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

Nork nahi du jan udarea?	Nork nahi du udarea jan?
Ahal dut izan anaia handia?	Anaia handia izan naiteke?
Ari zarete jaten gazta bat?	Gazta jaten ari zarete?
dago beroa patioan?	patioan beroa egiten du?
Jupiter da handia gehiago ilargia baino?	Jupiter ilargia baino handiago da?
Zer pasatu dio?	Zer gertatu zaio?
Ahal dugu jolastu zu ta ni dominoan?	Dominoan ari gaitzke?
Nahi duzu jolastu?	Jolastu nahi duzu?
Zergatik ez esan zuk niri fotoa bestea zegoela?	Zergatik ez didazu esan beste argazki bat egin behar zutela?
Hori zer da? Animalia hori	Animalia hori zer da?
Nahi duzu egin beste gauza bat nik?	Nahi duzu nik beste gauza bat egitea?
Agegnehu, zer gertatzen zaio hor begian?	Agegnehu, zer gertatzen zaizu begian?
Dauka plastilina?	Plastilina dauka?
Duzu ikusten?	Ikusten duzu?
Hauekin margotu?	Hauekin margotu behar dut?
Non botak hau?	Non utzi behar ditut bota hauek?
Ikusi duzu lata bat gorri eta berdea?	Gorria eta berdea den lata ikusi duzu?
ez nahi duzu hau?	Ez duzu hau nahi?
zer nahi du egin Beñat?	Zer egin nahi du Beñatek?
Berdina tokian?	Toki berean?

Galderetan ere aurreko ondorio bera atera daiteke, gaztelaniak eragin zuzena dauka euskararen hitz-ordenan.

2.3. Interpretazioa eta ondorioak

2.3.1. Datuen interpretazioa

Lehen esan bezala Nafarroan euskara eta gaztelania elkarren ondoan bizi dira, eta pertsona askok bi hizkuntzak erabiltzen dituzte. Hori dela-eta haien arteko nahasketa gertatzen da. Kasu honetan, argi ikusten da adibide gehienetan gaztelaniako hitz-ordena erabiltzen dutela nahiz eta euskaraz hitz egin. Horrek, euskarazko ordena propioa galtzea ekar dezake eta horregatik hasieratik, hizkuntza ikasten dugunetik, modu egokian erabili behar dugu. Ordena hori ez finkatzeko, eta hizkuntzaren zati garrantzitsu bat ez galtzeko.

Honetaz gain, garrantzitsua da esaldi hauek 4-5 urteko haurrek esandakoak direla jakitea. Ikasle hauek oraindik hizkuntza garatzen ari dira. Hizkuntza bat ikasten dugunean hainbat aro igarotzen ditugu, eta akats batzuk horren ondorio zuzena izan daitezke. Horrela izanez gero, denbora pasatu ahala, hazkuntzarekin batera zuzentzen joango dira.

Bestalde, kontuan izan behar dugu haur hauek idazketa-irakurketa ikaskuntzan murgiltzen hasi diren arren, oraindik ez dutela gaitasun hori eskuratu, eta beraz esaldi guztiak ahozkoak direla. Idatzizko edo ahozko hizkuntzan komunikatzen garenean ezberdintasunak nabariak dira. Ahozko hizkuntza erabiltzean, aldi berean hitz egiten eta pentsatzen dugu. Horregatik kasu batzuetan esaldi bat egiten hasten garenean beste gauza bat etortzen zaigu burura eta azken momentuan esaldia aldatzen dugu, esaldiaren egitura kontutan izan gabe eta akats bat eginez. Idatzizkoan berriz egindakoa erreparatzeko aukera daukagu, eta beraz gaizki egonez gero hori zuzentzeko aukera izango genuke. Hori dela eta, esaldi batzuetan ikusi dugun ordena horren eragina izan daiteke. Horrek ez du esan nahi pertsona horrek beti ordena okerra erabiltzen duenik.

Euskararen hitz-ordena aztertzerakoan testuingurua ezagutzea ezinbestekoa da. Honen arabera ordena bat edo beste jarraituko dugulako. Adibidez “Nik gaur etxe bat egin nahi dut” esaldiak ordena ezberdinak izan ditzake:

Nik gaur etxe bat egin nahi dut – ordena neutroa edo ez markatua izango da, SOA ordena.

Gaur etxea nik egin nahi dut – *Nork egin nahi du?* Galderaren erantzuna izango da edo etxea nork egin nahi duen azaltzen du, nahiz eta galderarik ez erantzun.

Nik gaur etxea egin nahi dut – *Zer egin nahi duzu?* Galderari erantzuten dio esaldiak, ordena neutroa izateaz gain.

Nik etxea gaur egin nahi dut – *Noiz egin nahi duzu?* Galderaren erantzuna izango da.

Nik etxe bat egin nahi dut – *Zenbat egin nahi dituzu?* Galderaren erantzuna izango da.

Beraz, testuinguruaren arabera edo komunikatu nahi dugunaren arabera hitz-ordena bat edo bestea erabiliko dugu. Baina esaldi okerrak ere aurki ditzakegu, testuingurua edozein izanda ere baliagarria izango ez dena: “nahi dut etxe bat egin”.

Bestalde, hurrek sintagmekin arazoak dituztela ikusi dugu. Huts hau besteak baino larriagoa da. Euskaraz sintagmen barruko ordena ezin delako aldatu. Esaldiaren barruan sintagmak ordenaz alda daitezke. Beraz, nahiz eta esaldiaren barruan ordena ezberdinak erabil ditzakegun, inoiz ezin dugu sintagmen ordena aldatu. Hau da, “*Katu marroiak ostiral arratsaldean txokolate zuria jan zuen*” esaldia modu ezberdinetan ordena daiteke. Adibidez:

“Katu marroiak txokolate zuria ostiral arratsaldean jan zuen”

“Ostiral arratsaldean txokolate zuria katu marroiak jan zuen”

Baina sintagma horien ordena aldatzea ez da egokia. Hurrengo hauek okertzat hartuko ditugu beti:

“marroia katu”

“zuria txokolatea”

“arratsalde ostiralean”

Beraz, akats horiek zuzentzea oso garrantzitsua da, hori lortuta akats asko desagertuko liratekeelako.

Behaketaren bidez hartutako esaldietan ikusten den bezala azkeneko hau da erabiliena haur hauen artean eta akats hori zuzendu behar da.

2.3.2. Esku-hartzea

a) Orokorra

Hizkuntza ikasterako orduan oso garrantzitsua da ahozko komunikazioa menperatzea. Ikasle hauetako gehienek etxean ez dute euskaraz komunikatzeko aukerarik eta euskara ikasteko baliabide bakarra eskola da. Horregatik, klasean garrantzi handia eman behar zaio hizkuntza, bere arlo guztietan, modu egokian irakasteari. Irakaslea ikasle batzuen euskal eredu bakarra izango baita eta, beraz, berak erakusten duen moduan ikasiko dute.

Datuetan ikusten den bezala ikasleek arazoak dituzte euskarazko hitz-ordenarekin. Esan beharra dago ikasle hauetako gehienek orain arte ez zuela euskaraz hitz egiten, eta, beraz, akatsak izaten dituzten arren euskaraz produzitzen hastea pauso handia dela haientzat.

Klasean garrantzia ematen diote ikasleek euskaraz hitz egiteari, haien kabuz ahal duten guztia produzitzeari, euskaraz komunikatzen ikasteari, bai irakaslearekin baita gainerako ikasleekin ere, eta esan nahi dutena azaltzen jakiteari.

Behin hori lortuz gero, ikasleek egiten dituzten akatsak modu egokian esanez eta errepikatuz zuzentzen dira. Adibidez, ikasle batek “da gorria marigorringoa” esaten badu, irakasleak “*marigorringoa gorria da*” esango dio berak errepika dezan. Horrela haurra egitura ikasten joango da eta gutxinaka modu egokian erabiliko du.

Hori dela eta, klasean egunero gertatzen diren ekintzetan erabili beharreko esaldiak modu egokian erabiltzen dituzte hurrek, behin eta berriz errepikatzen dituztelako egunean zehar. Hurrek modu egokian erabiltzen dituzte egunero esaten dituzten esaldiak eta hori behaketaren bidez ondorioztatu dugu, esaldi hauek ia kasu guztietan ongi osatzen zituztelako:

“Pixa egin nahi dut”

“Ura edan nahi dut”

“Ez dut nahi”

“Iker etorri da?”

“Bai, etorri naiz”

“Ez da etorri, etxean dago”

“Gaur asteartea da”

Hala ere, pertsona bakoitzaren garapena ezberdina da eta ikasteko erritmoa ere bai. Horregatik, ikasle batzuk esaldi horien egitura okerra erabiltzen dute oraindik. Baina askotan errepikatzen direnez gutxinaka ikasten joango dira.

Hurrek imitazioaren bidez ikasten dute gehienbat, horregatik aipatu beharra dago, nahiz eta jakintzat ematen den, irakasleak hitz-ordena modu egokian erabili beharko duela, ikasleek ere ongi erabil dezaten. Zuzenketez ez dutelako ezertarako balio ikasleekin elkarrizketa bat izaterakoan irakasleak hitzak ordena egokian esaten ez baditu.

Lehen esan dugun bezala zuzenketa eta errepikapena dira hitz-ordena eta beste hizkuntza akatsak zuzentzeko erabiltzen diren metodoak. Gaia aztertu eta gero, hitz-ordena modu egokian erabiltzeko bi jarduera pentsatu ditut. Euskararen hitz-ordena ingurunearen arabera da eta horregatik zaila da jarduera bakar batekin lantzea. Honetaz gain, Haur Hezkuntzako bigarren mailan ikasleek ez dakite irakurtzen, letrak ezagutzen dituzte baina ikasle gehienak oraindik ez dira gai hitz bat irakurtzeko. Hori

dela eta, erabiltzen ditugun jarduerak ahozkoak izan behar dira, ikasle guztientzat erabilgarri izan daitezen.

Honetaz gain, talde bakoitza ezberdina da eta akats ezberdinak izango ditu. Horregatik jarduerak prestatu baino lehen taldea ezagutu, aztertu eta ateratzen diren emaitza eta ondorioen arabera erabiliko diren jarduerak prestatu beharko dira. Hala ere, jarduera hauek ez dira urte batean egin behar eta oinarria lortu dutela ziurtatzerakoan jarduera gehiago ez egin edo horiek erabiltzeari utzi. Jarduerak modu jarraitu batean egiten joan beharko dira. Oinarria lantzen hasita eta gutxinaka jarduerak zailtzen joanez ikasle guztiek euskararen hitz-ordena egokia erabili arte edozein egoeratan. Jarduera hauek izaten duten eraginaren arabera moldatu beharko dira eta ikasleek egitura bat ikasi dutenean jardueran beste egitura bat sartu beharko da, horrela ikaskuntza jarraitua izan dadin.

Aipatutako irakasteko moduez gain beste batzuk ere badaude:

Irakaslearen laguntza mota:

- Espazituki zuzenduz berradierazten du ikasleak esandakoa.
- Inplizituki zuzenduz berradierazten du ikasleak esandakoa.
- Laguntza eskaintzen du, esan beharrekoaren hasiera edo aurrera egiten laguntzeko esaldia esanez ikasleari.
- Ikasleak esandakoaren hitzez hitzeko zentzuari jarraitzen dio, komiko edo absurdu bihurtu arte.
- Esan edo idatzitakoa aztertzeko esaten dio, eta berriro esan edo idatz dezala.

Laguntzeko teknikak edo tresnak:

- Irakaslearekiko eragin-trukea, hark solas-doiketak egiten ditu etengabe.
- Jatorrizko hitzunikiko solasa, haiek hezitzaile-gidari rola hartzen dute.
- Buruz ikasitako testuak: errituak, olerkiak, elkarrizketatxoak, asmakizunak, kantak, antzerkiak, etab.
- Teknika mnemonikoen erabilera.
- Beste batzuek hizketa behatzea. Testu idatziak behatzea.
- Formari buruzko gramatika-gogoeta. Forma eta esanahia kontrastea.
- Forma, esanahia edota funtzioari

- Adierazpen zuzena ematen dio. buruzko gogoetak.
- Eredua gogorarazten dio.
- Araua azaltzen dio.
- Akatsa dagoela esaten dio
- Akatsa non dagoen esaten dio
- Konpontzeko zenbait aukera eskaintzen dizkio; tartean, zuzena dena.

Edozein jarduera aurrera eraman baino lehen, taldea eta taldeko pertsona guztiak ezagutzea ezinbestekoa da. Ikasle bakoitzak bere nortasuna eta ikasteko erritmoa daukalako eta hori momentu oro errespetatu behar dugulako.

Prestatu dudan lehen jarduera ordena neutroa edo ez markatua lantzeko da. Aztertutako esaldietan gehien errepikatzen diren akatsen artean aditz modalak perpausaren hasieran jartzea dago, horregatik bigarren jarduera horri buruzkoa da.

Jarduerak azaldu baino lehen esan beharra dago ariketa hauek teorikoak direla eta frogatzeko aukerarik ez dudala izan. Beraz, ez dakit ondorioak positiboak edo negatiboak izango diren. Hala ere, taldearen arabekoak izango direla pentsatzen dut eta beraz, ikastalde batentzat egokiak ez badira moldatu beharko dira, baliagarriak bihurtu arte.

b) Lehenengo jarduera: ordena neutroa ikasteko jarduera

Jarduera honen bidez euskarazko SOA (subjektu, objektu, aditza) ordena, neutroa edo ez markatua landuko da. Ahozko jarduera izango da, baina irudiak eta irudi horiek adierazten dituzten hitzak (letra larriz idatziak) erabiliko dira laguntza moduan.

Momentu oro ikusten den toki batean jarriko dira irudi horiek. Horrela, haurrek behar dutenean begiratzeko eta horren bidez laguntzeko.

Irudietan perpausak agertuko dira, eta atalak aipatutako ordenan egongo dira. Adibidez, hurrengo esaldiak erabili ahal ditugu:

Euskararen hitz-ordena: sistema beregaina ala erdararen mendekoa?

SUBJETUA	OBJETUA	ADITZA
Nik	sagarra	jan dut
Zuek	larunbatean	laster egin zenuten
Guk	baloiarekin	jolasten dugu

Hasieran, irakasleak azalduko du zerbait kontatzerakoan irudiei begiratu behar zaiela eta agertzen diren ordenan esan. (ikus 1. Eranskina) Argi utzi behar du galderak egiten zaizkienean ez dela beharrezkoa irudiei jarraitzea, eta bakarrik egin duten zerbait kontatu nahi dutenean erabili behar dela.

Jarduera honen arriskua ikasleek bakarrik ordena neutroa erabiltzea da. Hau da, esan behar duten guztia esateko, baita galderak erantzuteko ere, irudiak begiratzea eta bertan agertzen den ordena jarraitzea. Beraz, irakasleak kontu handiz erabili beharko ditu irudiak eta argi utzi zein momentutan begiratu behar dituzten eta zeinetan ez. Beste ordena bat erabiltzen dutenean egokia bada, ongi dagoela esanez eta ordena neutroa behar ez den momentuan erabiltzean gaizki dagoela adieraziz. Euskarak ez duelako ordena neutroa bakarrik erabiltzen eta ikasleek hori bakarrik erabiliz gero beste ordenak desagertuko liratekeelako.

Jarduerak duen arazo honengatik, irakasleak begia eduki behar lioke ikasleek esaten dutenari, eta batez ere haiekin hizketan ari delarik, edo talde osoarekin dagoelarik erabili. Horrela ziurtatuko baitu ikasleek modu egokian erabiltzen duten edo ez.

Jarduerak funtzionatzen badu, SOA ordena ongi erabiltzen dutelarik, beste ordena batzuk gehitzen joan daitezke. Adibidez, gelan erabiltzen diren galderak sartu eta horien erantzun posibleak jarriz joan daiteke. Horrela ikasleek euskaraz erabil daitezkeen ordena guztiak ikusi arte.

c) Bigarren jarduera: denda

Jasotako datuetan ikusten den bezala, gela honetan askotan errepikatzen den akatsa aditza hasieran jartzea da. Batez ere, aditz modalekin gertatzen da. “Nahi dut margotu”, “nahi dut jolastu” eta mota horretako esaldiak askotan ikusi ditugu. Nahiak edo beharrak adierazteko orduan hitzen ordena gaizki erabiltzen dute.

Hori zuzentzeko eta normalean Haur Hezkuntzako gelak txokoetan antolatzen direla baliatuz, denda txokoa jarriko da gelan. Beste edozein txokok bezala funtzionatuko du. Denda txokoan taldeka arituko dira, gutxienez bi behar direlako dendan jolasteko (dendaria eta bezeroa), eta bertan libre arituko dira jolasean. Hala ere, irakasleak beti begi atxikiko dio haiek hitz egiten dutenari, hitz ordena modu egokian erabiltzen ari diren ikusteko eta hala ez bada zuzendu ahal izateko.

Txokoa erabiltzen duten lehenengo egunean irakasleak denda bat dela azalduko du, Bertan jolasteko dendaria eta bezeroak egongo direla esango die. Dendariak hainbat produktu izango ditu bere dendan (janaria, arropa, garbitzeko produktuak, jostailuak...) eta produktu bakoitzak bere prezioa izango du. Bezeroak dirua izango du eta nahi duen guztia erosteko aukera izango du.

Hizkuntza landuko dugunez, irakasleak esaldiak nola egin azaldu beharko du lehenengo egunean. Hau da, sagarrak erosi nahi baditugu “sagarrak nahi ditut” esango dugula, eta ez “nahi ditut sagarrak”. Hainbat adibide jarri beharko ditu irakasleak eta horrela ikasleek imitazioaren bidez modu egokian erabiliko dituzte.

Bestalde, aditz modalak dituzten esaldiak erabiltzeaz gain eta bezeroa ez dadin hitz egiten duen bakarra izan, dendariak ere egun horretan dendan daukana azaldu dezake. Edo bezeroari erosteko proposamenak egin. Horrela “gaur loreak ditut”, “sagar gorriak onak daude” motako esaldiak ikasiko dituzte.

Gutxinaka esaldiak osatuz joan gaitezke, edo esaldi gehiago sartuz. Horrela hasiera batean bakarrik aditz modalak dituzten esaldietan zein hitz ordena erabili behar den ikasi badute, esaldi horiek konplikatuz joan gaitezke. Gainera, jarduera librea denez, ikasleek nahi duten guztia hitz egin dezakete eta haiek esaten dutena kontuan izanik esaldi berriak gehituko ditugu.

Jarduera hau hitz ordena ikasteko baliagarria izan dadin irakasleak, momentu oro, entzun eta zuzendu behar du, txokoan sartuta, haiekin jolastuz, edo kanpoan, egiten dutena entzuten. Zuzenketak egiten dituen heinean, akatsak gero eta gutxiagotan gertatuko dira, eta irakaslearen presentzia ez da ezinbestekoa izango.

Denda txokoaren bitartez hizkuntzaren hitz ordena lantzeaz gain beste hainbat arlo lantzen dira. Erosketak egiten direnez gero, kalkulua eta matematika landuko dira eta ikasleen arteko harremanak eta komunikazioa. Honetaz gain, eguneroko egoera da, eta eskolatik kanpo horretan nola moldatu behar diren ikasiko dute.

Jarduera honekin ikasiko dituzten esaldiak hauen antzekoak izango dira:

Dendaria:

Bezeroa:

“Gaur sagarrak dauzkat”

“Bost limoi nahi ditut”

“Udareak txikiak dira”

“Piper gorri txikiak nahi ditut”





“Laranjak goxoak daude”

“Gaur zer daukazu?”

Esaldi hauek, lehen aipatu bezala, gutxinaka zailduz joango dira, hau da, osagarri gehiago izango dituzte.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA

SUBJEKTUA	OBJEKTUA / OBJETUAK	ADITZA
 <p>NIK</p>	  <p>GAUEAN HORTZAK</p>	 <p>GARBITZEN DITUT</p>



GUK




ESKOLARA




KORRIKA ETORRI

GARA



HAIEK



GEREZIAK



JAN DITUZTE

BIBLIOGRAFIA

- DE RIJK, R., 1969, "Is Basque a S.O.V. language?", *FLV* 1, 319-351.
- EUSKALTZAINDIA, 1987, *Euskal gramatika. Lehen urratsak*, Bilbo.
- OSA UNAMUNO, E, 1990, *Euskararen hitz ordena. Komunikazio zereginaren arauera*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- RUIZ BIKANDI, U., 2009, *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*, Gipuzkoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ZUBIRI, J.J., 1996-97, "Izen sintagma eta kasuen jabeakuntza bi haur euskaldun elebakarrengan", *Huarte de San Juan* 2-3, 112-113